# INFORMAZIOAK
# INFORMACIONES

## LEGEBILTZARREKO ORGANOEN ERABAKIAK ETA KOMUNIKAZIOAK
## ACUERDOS Y COMUNICACIONES DE LOS ÓRGANOS PARLAMENTARIOS

***Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren instrukzioa, Eusko Legebiltzarreko aretoetako sarrera, presentzia, erabilera eta funtzionamendua arautzen dituena***

Mahaiak, 2020ko azaroaren 3ko bileran, Bozeramaileen Batzarraren iritzia entzunda, onetsi du Legebiltzarreko aretoetako sarrera, presentzia, erabilera eta funtzionamendua arautzen dituen instrukzioa, eta agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIAREN INSTRUKZIOA, 2020KO AZAROAREN 3KOA, EUSKO LEGEBILTZARREKO ARETOETAKO SARRERA, PRESENTZIA, ERABILERA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DITUENA

Instrukzio honen xedea da, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak 2020ko urriaren 13an onartutakoaren antzera, Legebiltzarreko jarduerak egiteko erreserbatutako espazioen erabilera arautzea eta antolatzea, hala nola batzordeak, ponentziak eta taldeartekoak, eta talde parlamentarioen bilerak, bai eta komunikazioko langileek jarduera horietaz egiten duten komunikazio-jarduera ere.

Instrukzio honek biltzen ditu Eusko Legebiltzarreko Mahaiak 2020ko urriaren 27an hartutako erabakia, zeinak hartu baitziren Euskadiko osasun-egoera larriagotzen ari zela eta koherente jokatzeko lehendakariaren 36/2020 Dekretuarekin (urriaren 26koa, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko).

Gaur egungo osasun-testuinguruan, ezinbestekoa da osasun-agintariek ezarritako prebentzio-neurriak arretaz jarraitzea, eta horrek berekin dakar funtzionamendu-jarraibide batzuk ezartzea eta Legebiltzarreko guneen erabilera baimendutako gehieneko edukieretara egokitzea.

Instrukzio honen helburua ez da Legebiltzarreko batzordeen, ponentzien eta taldeartekoen ohiko osaera aldatzea edo mugatzea, haien ohiko formulazioan, ez eta erregelamenduz aitortzen zaien

***Instrucción de la Mesa del Parlamento Vasco por la que se regula el acceso, la presencia, uso y funcionamiento de las distintas salas del Parlamento Vasco***

La Mesa, en su reunión del día 3 de noviembre de 2020, oída la Junta de Portavoces, aprueba la instrucción por la que se regula el acceso, la presencia, uso y funcionamiento de las distintas salas del Parlamento, y ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

INSTRUCCIÓN, DE 3 DE NOVIEMBRE DE 2020, DE LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO, POR LA QUE SE REGULA EL ACCESO, LA PRESENCIA, USO Y FUNCIONAMIENTO DE LAS DISTINTAS SALAS DEL PARLAMENTO VASCO

La presente instrucción tiene por objeto, al igual que la aprobada por la Mesa del Parlamento Vasco el día 13 de octubre de 2020, la regulación y ordenación del uso de los espacios reservados para la realización de las distintas actividades parlamentarias, tales como comisiones, ponencias e intergrupos, reuniones de los distintos grupos parlamentarios, así como la actividad de comunicación que de ellas se hace por parte de las trabajadoras y trabajadores de la comunicación.

La presente instrucción incorpora los acuerdos de 27 de octubre de 2020 de la Mesa del Parlamento Vasco, adoptados en el marco de un agravamiento de la situación sanitaria en Euskadi y en consonancia con el contexto descrito por el Decreto 36/2020, de 26 de octubre, del lehendakari, por el que se determinan medidas específicas de prevención, en el ámbito de la declaración del estado de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2.

En el contexto sanitario actual resulta inevitable acoger con celo las medidas preventivas establecidas por las autoridades sanitarias, lo que conlleva establecer pautas de funcionamiento y adaptar el uso de los espacios parlamentarios a los aforos autorizados.

La presente instrucción no pretende alterar o limitar la composición de las distintas comisiones parlamentarias, ponencias e intergrupos, en su formulación habitual, ni restringir la actividad que

jarduera mugatzea ere. Beraz, instrukzio honek ez dakar inolako aldaketarik haien osaeraren eta funtzionamenduaren diseinuan.

Hala ere, eraikinaren errealitate fisikoa dela eta, ezinbestean egokitu behar da legebiltzarkideen eta bileretan aurrez aurreko presentzia izateko baimena duten langileen presentzia fisikoa baimendutako edukieretara.

Era berean, beharrezkoa da aretoak desinfektatzeko oinarrizko protokolo bat ezartzea, eztabaida-puntu edo bilera bakoitza amaitu aurretik, bitartean eta amaitzean, kasuaren arabera, Legebiltzarreko agendaren jarraipena osasun-berme guztiekin eta funtzionamenduan ahalik eta normaltasun handienarekin egin ahal izateko.

Instrukzio honek aretoetara sartzeko protokolo bat ezartzen du, baita Ganberaren osoko bilkurara sartzeko ere, bai eta bertan egoteko arau eta garbiketa-jarraibide batzuk ere. Horrez gain, orain arte beste funtzio batzuetarako gordetako espazioetan saioak egiteko aukera zabaltzen da. Azkenik, baliabide teknikoen beharraz jakinarazteko prozedura bat ezartzen da, presentziala izango ez den jarduera parlamentarioa nabarmen handitu baitaiteke, irailaren 24ko osoko bilkuran onartu zen Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduko erreformaren ondorioz.

Bestalde, legegintzaldi bakoitzaren hasieran, Prentsa eta Komunikazio Atalak komunikabideetako langileen sarrera eta mugimendua erregulatzeko arau batzuk proposatzen ditu, arau horiek ondoren Eusko Legebiltzarreko Mahaiak onar ditzan.

Hainbat legegintzaldi daramatzagu arau horiek Eusko Legebiltzarraren jarduera zabaltzearekin eta handitzearekin lotzen ari garela. Oraingo honetan, ordea, COVID-19aren birusak eragindako pandemia-egoerak baldintzatuta gaude; izan ere, Eusko Legebiltzarrak sortzen duen jarduerari buruzko informazio-lanak egiten dituzten langileak egoitza parlamentarioetara sartzeko eta bertan mugitzeko mugak ezarri behar dira, betiere ezarritako segurtasun-arauen eta pertsonen arteko distantzia-arauen arabera.

Horregatik guztiagatik, honako neurri hauek ezarri dira:

**Lehenengoa. Eusko Legebiltzarreko areto guztietara sartzeko neurri orokorrak**

Legebiltzarreko sarreren izapidetzearen eta kudeaketaren bidez, Legebiltzarraren eraikinak jarduera parlamentarioan edo administratiboan duen edukieraren berri eman nahi zaie bai erabiltzaileei bai Administrazio parlamentarioari, bai eta Legebiltzarreko areto bakoitzaren edukierarena ere, pertsona guztien osasuna bermatze aldera, behar diren prebentzio- eta euspen-neurriak hartuz.

reglamentariamente se les reconoce. Por tanto, no implica ninguna alteración en el diseño de su composición y funcionamiento.

Sin embargo, dada la realidad física del edificio, resulta inevitable adecuar la presencia física de parlamentarias y parlamentarios, así como del personal presencial autorizado en las distintas reuniones, a los aforos permitidos.

Igualmente, resulta preciso establecer un protocolo básico de desinfección de las salas, antes, durante y al finalizar cada punto de debate o reunión, según los casos, que permita el seguimiento de la agenda parlamentaria con todas las garantías sanitarias y con la máxima normalidad posible en su funcionamiento.

La presente instrucción establece un protocolo de acceso a las salas, incluido el pleno de la Cámara, algunas normas de estancia y pautas de limpieza. También la habilitación opcional de espacios hasta ahora reservados a otras funciones, así como un procedimiento de comunicación de necesidades técnicas, en previsión de un notable incremento de la actividad parlamentaria no presencial, reglamentariamente habilitada por la reforma del Reglamento del Parlamento Vasco acordada en sesión plenaria de 24 de septiembre de 2020.

De otro lado, al inicio de cada legislatura, desde la Sección de Prensa y Comunicación se proponen una serie de normas reguladoras del acceso y movimiento del personal de los medios de comunicación, para su aprobación por la Mesa del Parlamento Vasco.

Llevamos una serie de legislaturas en las que estas normas están vinculadas a la mayor apertura y al aumento de la actividad del Parlamento Vasco. En esta ocasión, sin embargo, estamos condicionados por la situación de pandemia provocada por el virus de la COVID-19, que obliga, conforme a las normas de seguridad y distancia interpersonal, a establecer limitaciones en el acceso y movimiento por la sede parlamentaria del personal dedicado a cubrir informativamente la actividad de la Cámara.

Por todo ello, se establecen las siguientes medidas:

**Primera. Medidas generales de acceso a todas las dependencias del Parlamento Vasco**

La tramitación y gestión de accesos a la institución parlamentaria persigue informar tanto a las personas usuarias como a la propia Administración parlamentaria del aforo del edificio en su conjunto, así como del de sus dependencias, durante la actividad parlamentaria o administrativa, al objeto de garantizar la salud de todas las personas, adoptando las medidas de prevención y contención adecuadas.

Erabiltzaileek Eusko Legebiltzarrera sartzeko, exijituko dira nahitaezko egiaztagiria, identifikazioa eta sarrera-kontrola.

Akreditazioa zerbitzu bakoitzeko arduradunek emandako baimena da, zeinak bide ematen baitu Legebiltzarreko instalazioak eta baliabideak erabiltzeko. Baimenak, betiere, aldez aurretik eta elektronikoki bideratuko dira baimendutako instantzien aurrean (protokolo, prentsa, segurtasun eta mantentze-lanen zerbitzuetan eta talde parlamentarioetan, kasuaren arabera).

Aldez aurretik baimendutako pertsona erakundera sartzen den unean identifikatuko da. Horretarako, nor den jakinarazi beharko die segurtasun-langileei, zeinek txartel bat emango dioten, une oro eraman beharko duena soinean, eta ezarritako segurtasun-kontrolak pasatu beharko ditu ondoren.

Arestian esandako faseak eginda, soilik baimendu zaizkion instalazioetara edo aretoetara sartu ahal izango da pertsona hori. Pertsona guztiek, indarrean dauden osasun-arauak betetzeko, maskara erabili beharko dute une oro, eta Eusko Legebiltzarreko zerbitzuek adierazitako jarraibideak bete beharko dituzte.

Honako erabiltzaile hauei aplikatuko zaie Legebiltzarreko instalazioetan sartzeko eta haiek erabiltzeko prozesuaren kudeaketa:

- Hornitzaileak eta kontratetako langileak.
- Komunikabideak.
- Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak.
- Gonbidatuak.
- Bisitariak.

Soilik lehendakaria, jarduneko legebiltzarkideak, Eusko Legebiltzarreko funtzionarioak eta behin-behineko langileak eta Eusko Jaurlaritzako sailburuak sartu ahal izango dira akreditaziorik gabe. Gainerako pertsonek jasotako egiaztagiria beti ikusteko moduan eraman beharko dute, zerbitzuei beren mugimenduak kontrolatzen laguntzeko.

Sarreren kudeaketa indarreko araudia eta jarraibideak betez egingo da, eta areto bakoitzaren edukiera-mugari, zeina dokumentu honi eransten zaion, jarraikiz. Horren arabera, Eusko Legebiltzarreko areto eta bulego guztiek bereizgarri bat izango dute sarreran, begien bistan, baimendutako edukiera adieraziko duena.

**Bigarrena. Osoko bilkuran sartzea, irtetea eta bertan egotea**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak 2020ko urriaren 27an hartutako erabakiarekin bat etorriz, Osoko Bilkuraren bilkuretara soilik sartuko dira Mahaiko bost kideak, legelari nagusia, edo hura ordezkatzen duen

El acceso a las dependencias del Parlamento Vasco por las distintas personas usuarias exigirá la debida acreditación, identificación y control de acceso.

La acreditación es la autorización otorgada por las personas responsables de cada servicio, que faculta a acceder y a utilizar las instalaciones y los medios dispuestos por el Parlamento. Las autorizaciones se sustanciarán siempre con carácter previo y por vía electrónica ante las instancias autorizadas (servicios de protocolo, prensa, seguridad y mantenimiento y grupos parlamentarios, según los casos).

La identificación se realizará en el instante en que la persona previamente autorizada accede a la institución. Para ello, deberá identificarse ante el personal de seguridad, que le hará entrega de una tarjeta que deberá portar en todo momento, y pasar posteriormente los controles de seguridad establecidos.

El acceso se realizará, tras haber completado las fases anteriores, accediendo a las instalaciones o dependencias concretas a cuyo acceso se encuentra autorizada. Todas las personas deberán acceder, atendiendo a las normas sanitarias vigentes, con mascarilla, y cumplir las directrices que se les indiquen desde los servicios del Parlamento Vasco.

La gestión del proceso de acceso y uso de instalaciones parlamentarias se aplicará a las siguientes personas usuarias:

- Proveedores y personal de contratas.
- Medios de comunicación.
- Altos cargos del Gobierno Vasco.
- Personas invitadas.
- Visitas.

Únicamente el lehendakari, los parlamentarios y parlamentarias en ejercicio, el personal funcionario y eventual del Parlamento Vasco, y las consejeras y consejeros del Gobierno Vasco accederán sin acreditación. El resto de las personas deberá llevar la acreditación recibida siempre visible, para ayudar a los servicios en el control de sus movimientos.

La gestión de accesos se realizará en cumplimiento de la normativa e instrucciones vigentes y atendiendo a la delimitación de aforos que se adjunta al presente documento. Conforme a él, todas las salas y dependencias del Parlamento Vasco contarán con un distintivo visible a la entrada que indicará el aforo permitido.

**Segunda. Entradas, salidas y permanencia en el pleno**

De conformidad con el acuerdo de la Mesa del Parlamento Vasco, de 27 de octubre de 2020, a las sesiones del Pleno asistirán los cinco miembros de la Mesa, el letrado mayor, o letrado o letrada que le

legelaria, eta talde parlamentarioek izendatzen dituzten kideak, talde bakoitzak duen zenbatezko garrantziaren arabera honela banatuta:

Euzko Abertzaleak, 15.
EH Bildu, 10.
Euskal Sozialistak, 5.
Elkarrekin Podemos-IU, 3.
Euskal Talde Popularra-Ciudadanos, 3.
Talde Mistoa, 1.

Osoko bilkurara joaten ez diren legebiltzarkideek egokitzat jotzen duten taldeko kidearen esku utziko dute beren botoa.

Talde bakoitzari esleitutako legebiltzarkideen kopuruak, eztabaidetan duten jarrera defendatzeko nahikoa ez denean, ez du eragotziko botoa eskuordetua duen taldeko beste kide batek unean-unean bozeramaile gisa parte hartzea.

Legebiltzarkideek eta osoko bilkurako aretora sartzeko baimena duten langileek gel hidroalkoholikoa erabili beharko dute aretora sartzen diren bakoitzean; horretarako, gela hartzeko puntu batzuk prestatu dira sarrerako ate bakoitzean.

Era berean, eserlekuen arteko manpara-sistema bat ezarri da ordezkari bakoitzari gordetako espazioa definitzeko. Espazio horretan egon beharko dute. Ganberako beste kide batekin komunikatu behar izanez gero, eserlekuan dagoen interfonoa erabiliko da.

Hala ohiko osoko bilkuretan nola kontroleko osoko bilkuretan, legebiltzarkideek beren identifikazio-txartela eserlekuan sartuko dute sistemak quorum presentziala eta eskuordetutako botoak zehaztasunez zehaztu ditzan.

Osoko bilkurara sartzeko eta bertatik irteteko uneetan, dela saioaren hasieran eta amaieran, dela eztabaidaren puntua aldatzean eta bozketarako deietan, saihestu egin beharko da legebiltzarkideen pilaketa, batez ere igarobideetan.

Legebiltzarkideek, bai eta hemiziklora sartzeko baimena duten langile guztiek ere, osasun-berme nahikoak eskaintzen dituen maskara bat eraman beharko dute une oro. Era berean, hitza hartzen duenak maskara jarrita izango du mintzaldi osoan.

Beharrezkoa izanez gero, Legebiltzarrak behar bezala homologatutako maskarak eskainiko ditu hall nagusira sartzeko mahaian.

Ganberako zerbitzuek mintzalekua desinfektatuko dute handik hitz egiten den bakoitzean, eta ezin izango da mintzaleku hori berriz erabili desinfekzioa behar bezala egin arte.

sustituye, y los miembros que designen los grupos parlamentarios, distribuidos del siguiente modo, en proporción a su importancia numérica:

Nacionalistas Vascos, 15.
EH Bildu, 10.
Socialistas Vascos, 5.
Elkarrekin Podemos-IU, 3.
Vasco Popular-Ciudadanos, 3
Grupo Mixto, 1.

Las parlamentarias y parlamentarios que no asistan a la sesión plenaria delegarán su voto en el miembro de su grupo que consideren oportuno.

El número de parlamentarias y parlamentarios asignado a cada grupo, cuando no sea suficiente para la defensa de su posición en los debates, no impedirá que otro miembro del grupo que haya delegado su voto pueda intervenir puntualmente como portavoz.

Las parlamentarias y parlamentarios y demás personal habilitado para acceder al salón plenario deberán hacer uso del gel hidroalcohólico dispuesto cada vez que accedan a él; para ello, se han habilitado puntos de expedición en cada una de las puertas de acceso.

Igualmente, se ha establecido un sistema de mamparas entre escaños, que compartimenta el espacio reservado a cada representante, en el que habrán de permanecer. En caso de necesitar comunicarse con otro miembro de la Cámara, se empleará el interfono ubicado en el escaño.

Tanto en los plenos ordinarios como en los plenos de control, los parlamentarios y parlamentarias introducirán su tarjeta identificativa en el escaño, a efectos de facilitar que el sistema determine con exactitud el quorum presencial y los votos delegados.

En el momento de la entrada y salida del pleno, bien sea al inicio o al final de la sesión, bien en los cambios de punto y llamadas a votación, se deberá evitar la concentración de parlamentarias y parlamentarios, especialmente en los espacios de tránsito.

Los parlamentarios y parlamentarias, así como todo el personal que tenga acceso al hemiciclo, deberán portar, en todo momento, una mascarilla que ofrezca suficientes garantías sanitarias. Quien haga uso de la palabra portará igualmente la mascarilla durante toda la intervención.

En caso de ser necesario, el Parlamento ofrecerá, en el mostrador de acceso al hall principal, mascarillas debidamente homologadas a quienes las requieran.

Los servicios de la Cámara procederán a desinfectar el estrado cada vez que se produzca una intervención desde él, y no se podrá volver a utilizar hasta que la desinfección se produzca correctamente.

Osoko bilkuretan, aretoa aireztatu egingo da normalean, betiere zerbitzu teknikoek egokitzat jotzen badute.

Kontroleko osoko bilkuretan, Euskal Telebistak zuzenean emititzen dituen galderak amaitutakoan, eserlekuetatik izapidetuko dira galderak, eta hitza hartzen duenak zutik jarrita egin beharko du. Eserlekutik parte hartzen dutenek ere maskara jarrita izango dute mintzaldi osoan.

**Hirugarrena. Gobernuak eta talde parlamentarioek osoko bilkurara gonbidatutako pertsonak**

Edukiera behar bezala kontrolatzeko, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak –Gobernuak gonbidatzen dituen pertsonei dagokionez– eta talde parlamentarioek –gonbidatzen dituzten pertsonei dagokionez– 48 ordu lehenago jakinaraziko diote Eusko Legebiltzarreko Protokolo Zerbitzuari (protokolo@legebiltzarra.eus) zer laguntzailerekin joango diren osoko bilkuretara.

Gonbidatzen diren Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunek, behin-behineko langileek eta funtzionarioek beren presentziaren berri emango dute, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren bidez, eta jakinaraziko dute zer kokaleku nahi duten bilkuran. Eusko Legebiltzarreko Protokolo Zerbitzuari dagokio erabakitzea bisitariek espazio komunetako zein tokitan egongo diren.

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak, 2020ko urriaren 27an egindako bilkuran, osoko bilkurako harmailen edukiera murriztea erabaki zuen, ondoko muga hauek ezarriz: bigarren solairuak 16 pertsonako edukiera izango du, eta hirugarren solairuak, 21 pertsonakoa.

Edukiera hori honela banatuko da:

- Bigarren solairuan, 7 leku hedabideentzat eta 9 gonbidatuentzat.
- Hirugarren solairuan, 5 leku Jaurlaritzako goi-kargudunentzat eta 16 gonbidatuentzat.

Gonbidatuentzat gordetako 25 lekuak honela banatuko dira:

- Euzko Abertzaleak: 10
- EH Bildu: 7
- Euskal Sozialistak: 3
- Elkarrekin Podemos-IU: 2
- Euskal Talde Popularra-Ciudadanos: 2
- Talde Mistoa: 1

Durante las sesiones plenarias se ventilará la sala habitualmente, siempre y cuando los servicios técnicos lo consideren oportuno.

Durante los plenos de control, una vez finalizadas las preguntas retransmitidas en directo por Euskal Telebista, las preguntas serán tramitadas desde los escaños y quien intervenga deberá hacerlo en pie. Quienes participen desde el escaño portarán igualmente la mascarilla durante toda la intervención.

**Tercera. Personas invitadas los días de pleno por parte del Gobierno y de los grupos parlamentarios**

A efectos de establecer un correcto control de aforos, tanto la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, en lo relativo a las personas invitadas por el Gobierno, como los grupos parlamentarios, en lo relativo a sus invitados, comunicarán, con 48 horas de antelación, al Servicio de Protocolo del Parlamento Vasco (protokolo@legebiltzarra.eus) la identidad de quienes asistirán a las sesiones plenarias como acompañantes.

Los altos cargos, personal eventual y funcionario del Gobierno Vasco que sean invitados comunicarán su presencia, por medio de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, e indicarán dónde desean que se les ubique durante la sesión. La determinación de la ubicación final en los espacios comunes de las personas visitantes es facultad del Servicio de Protocolo del Parlamento Vasco.

La Mesa del Parlamento Vasco, en sesión del 27 de octubre de 2020, acordó reducir el aforo de las gradas del pleno de la siguiente manera: la segunda planta contará con un aforo de 16 personas, y la tercera planta, de 21 personas.

Este aforo se distribuirá del siguiente modo:

- En la segunda planta, 7 puestos reservados para medios de comunicación y 9 para personas invitadas.
- En la tercera planta, 5 puestos reservados para altos cargos del Gobierno y 16 puestos para personas invitadas.

Los 25 puestos reservados a personas invitadas se distribuirán del siguiente modo:

Nacionalistas Vascos: 10
- EH Bildu: 7
- Socialistas Vascos: 3
- Elkarrekin Podemos-IU: 2
- Vasco Popular-Ciudadanos: 2
- Grupo Mixto: 1

Protokolo Zerbitzuak hartuko ditu talde parlamentarioek gonbidatutako pertsonak. Egoitzara iristen direnean, taldeek zerbitzu horri jakinaraziko diote gonbidatuak etorri direla eta zerbitzuak dagokien lekura lagunduko ditu. Pertsona horiek zuzenean sartzen badira taldearen bulegoetara, gela horietan baimendutako gehieneko edukiera mantendu beharko da, eta taldea bera arduratuko da arau hori betetzen dela zaintzeaz.

Las personas invitadas por los grupos parlamentarios serán atendidas por el Servicio de Protocolo. A su llegada a la sede, los grupos avisarán a dicho servicio, que asumirá el acompañamiento y ubicación de las personas invitadas. En caso de que estas personas accedan directamente a las estancias del grupo, se deberá mantener el aforo máximo permitido en estas dependencias, siendo el propio grupo responsable de observar el cumplimiento de esta norma.

### Laugarrena. Batzorde-aretoetako sarrera

Legebiltzarreko batzordeak 2. eta 3. batzorde-aretoetan egingo dira.

Soilik egoerak hala eskatzen duenean, dela bertaratutakoen kopurua mugatzea zaila denean, dela areto desberdinetan jarduera parlamentario asko dagoenean, erabili ahal izango da osoko bilkuren aretoa batzordeak egiteko.

2. eta 3. aretoetarako gomendatutako gehieneko edukiera kontuan hartuta, eta aireztapen naturalik gabeko espazioetan ordu luzeetan pertsonak bil ez daitezen, aretoan, gehienez, 9 legebiltzarkide egotea erabaki da.

Jarduera presentziala mugatu nahi baita, neurri horrek ez du aldatuko batzordeak Erregelamenduaren bidez osatzen dituzten kideen kopurua, ez eta erabakiak hartzeko gehiengoen araubidea ere. Bata zein bestea artikulatu ahal izango dira boto eskuordetuaren bidez zein parte-hartze telematikoaren bidez.

Euzko Abertzaleak talde parlamentarioak 3 legebiltzarkide izango ditu modu presentzialean; EH Bildu taldeak, 2, eta gainerako taldeek (Euskal Sozialistak, Elkarrekin Podemos-IU, Euskal Talde Popularra-Ciudadanos eta Misto) ordezkari bana izango dute modu presentzialean.

Batzordean ordezkari presentzial bakarra duten taldeek, aldi berean batzordeko Lehendakaritzaren titularrak badira, bigarren ordezkari bat eduki ahal izango dute, zeinak hitza izango duen baina ez botorik.

Batzordeko gainerako kideek telematikoki jarraitu eta parte hartu ahal izango dute batzordean. Hartarako, batzorde-aretoek behar diren baliabide teknikoak izango dituzte modu presentzialean ez dauden kideen irudiak eta audioa proiektatzeko, bai eta euskaratik gaztelaniarako interpretazio-kanalerako konexioa ere.

Gobernuaren ordezkarien agerraldiak, eta gizarte-eragile, eragile ekonomiko, elkarte, sindikatu, enpresa-erakunde, interes kolektibo edo partikularren ordezkarien agerraldiak, batez ere bitarteko telematikoen bidez egingo dira.

### Cuarta. Acceso a las salas de comisiones

Las comisiones parlamentarias se celebrarán en las salas de comisiones n.º 2 y 3.

Solo cuando la situación lo demande, bien por la dificultad de limitar el número de asistentes o comparecientes, bien por la concurrencia de mucha actividad parlamentaria en las distintas salas, el salón plenario podrá acoger la celebración de comisiones parlamentarias.

Atendiendo al aforo máximo recomendado para las salas n.º 2 y 3, y a fin de evitar la concentración de personas durante largas horas en espacios sin ventilación natural, se acuerda una presencia máxima en sesión de 9 parlamentarios o parlamentarias.

Se trata de limitar la actividad presencial, por lo que esta medida no implica una alteración en el número de miembros que conforman reglamentariamente las comisiones parlamentarias ni su régimen de mayorías, que se podrán articular bien por voto delegado, bien por participación telemática.

El grupo parlamentario Nacionalistas Vascos contará con 3 parlamentarios o parlamentarias presenciales; el grupo EH Bildu, con 2, y el resto de grupos (Socialistas Vascos, Elkarrekin Podemos-IU, Vasco Popular-Ciudadanos y Mixto) contará con un único representante presencial.

Los grupos que tuvieran un único representante presencial en la comisión y que, a su vez, fueran titulares de la Presidencia de la misma, podrán disponer de una segunda persona representante, que actuará con voz pero sin voto.

El resto de miembros de la comisión harán seguimiento y podrán participar telemáticamente, para lo que las salas de comisiones dispondrán de medios técnicos que permitan la proyección de imágenes y audio de miembros no presenciales, así como la conexión al canal de interpretación del euskera al castellano.

Las comparecencias del Gobierno en sede parlamentaria, así como de los agentes sociales y económicos, representantes de asociaciones, sindicatos, organizaciones empresariales, representantes de intereses colectivos o particulares,

Hala ere, agerraldi-egileek adierazten badute ez dutela baliabide tekniko egokirik, Legebiltzarrak bere gelak eskainiko ditu hitz-hartze telematikoa batzorde-aretoaren ondoko areto batetik egin ahal izateko.

Agerraldi bakoitzeko, gehienez ere lau pertsona sartu ahal izango dira eraikinera. Pertsona horiek 3. solairuko hallean hartuko dira, bisitariei harrera egiteko berariaz prestatutako besaulki-espazio batean. Espazio horrek, era berean, saioak ikusteko pantaila bat izango du. Orain adierazitako pertsona kopurua ezin izango da gainditu, behar bezala justifikatutako aparteko arrazoiengatik izan ezik, zeina protokolo-zerbitzuari (protokolo@legebiltzarra.eus) jakinarazi beharko zaion saioa baino 24 ordu lehenago.

Agertzeko deia egin ondoren, gehienez ere bi pertsona sartu ahal izango dira batzorde-aretora; gainerakoek, ondoko areto batetik, telematikoki ikusi ahal izango dute saioa. Agerraldi-egile ez-presentzialek batzorde-aretoan daudenekin partekatuko dute txanda. Hitz-hartze telematikoek, baina, ez dute arauzko denborak luzatzea ekarriko. Hitz-hartze guztiak proiektatuko dira aretoko pantailan.

Prentsa akreditatua eta talde parlamentarioetako eta Gobernuko komunikazio-langileak ezin dira egon ahal izango Legebiltzarreko batzordeen bileretan. Jarraipen informatiboa, hala dagokionean, Eusko Legebiltzarreko zerbitzuek ekoizten duten seinalearen bidez egin ahal izango da, eta seinale hori ohiko bideetatik banatuko da lan egiteko tokietara.

Kazetari grafikoek espazio bat hartu ahal izango dute korridorearen amaieran, pertsonen arteko distantzia-neurriak errespetatuz eta legebiltzarkideen sarrera oztopatu gabe –legebiltzarkideek eraikinaren aurrealdetik sartu beharko dute aretora lehentasunez–. Deitutako jardueran parte hartu behar duten pertsona guztiak sartu ondoren, kazetari grafikoak aretoaren atzeko atetik sartu ahal izango dira, Prentsa Atalaren jarraibideei jarraituz. Atal horrek bertan egoteko denbora mugatuko du.

Agerraldi bat amaitzen den bakoitzean edo puntuan esku hartu duen ordezkaria ordezten den bakoitzean, Legebiltzarreko zerbitzuek aurrekoek erabilitako mahaia, mikrofonoak eta eserlekuak garbituko eta desinfektatuko dituzte, eta horiek guztiak behar bezala saneatu direnean bakarrik sartu ahal izango dira hurrengo agerraldi-egileak.

Era berean, interprete bat ordezten den bakoitzean, kabinaz aldatuko da, eta horrek hutsik geratu dena desinfektatzea ekarriko du.

etcétera, se realizarán preferentemente por medios telemáticos.

No obstante, en aquellos casos en los que las personas comparecientes manifiesten que no disponen de medios técnicos adecuados, el Parlamento ofrecerá sus dependencias para hacer posible la intervención telemática desde una sala adyacente a la de celebración de la comisión.

Por cada comparecencia, podrá acceder al edificio un número máximo de cuatro personas, que serán recibidas en el hall de la 3.ª planta, en un espacio de butacas preparado específicamente para la recepción de visitantes, que contará, a su vez, con pantalla para el seguimiento de las sesiones. El número de personas ahora indicado no podrá ser rebasado, salvo razones extraordinarias debidamente justificadas, lo cual habrá de ser comunicado al Servicio de Protocolo (protokolo@legebiltzarra.eus) 24 horas antes de la sesión.

Una vez llamadas a comparecer, podrán acceder a la sala de comisiones un máximo de dos personas, y el resto podrá participar en la sesión vía telemática desde la sala contigua. Los comparecientes no presenciales compartirán turno con los presenciales en comisión, sin que las intervenciones telemáticas puedan implicar la extensión de los tiempos reglamentarios. Todas las intervenciones serán proyectadas en la pantalla de la sala.

La prensa acreditada y el personal de los grupos parlamentarios y del Gobierno dedicados a la comunicación no podrán asistir presencialmente a ninguna de las sesiones de las distintas comisiones parlamentarias. El seguimiento informativo, cuando proceda, lo harán a través de la señal realizada por los servicios del Parlamento Vasco, que se distribuirá por los cauces habituales a las diversas estancias de trabajo.

Los gráficos podrán ocupar un espacio al final del pasillo, respetando las medidas de distancia interpersonal y no interfiriendo en el acceso de las parlamentarias y parlamentarios, que prioritariamente deberán entrar en la sala desde la zona delantera del edificio. Una vez que hayan accedido todas las personas que participen en la actividad convocada, los gráficos podrán acceder por la puerta trasera de la sala, siguiendo las instrucciones del Servicio de Prensa, que limitará el tiempo de estancia en ella.

Cada vez que finalice una comparecencia o haya una sustitución del representante o la representante que intervenga en el punto, los servicios del Parlamento procederán a la limpieza y desinfección de la mesa, micrófonos y asientos empleados por los anteriores, y solo cuando hayan sido debidamente desinfectados podrán ser citados los nuevos comparecientes.

Igualmente, cada vez que se cambie de intérprete se variará de cabina, lo que implicará proceder a desinfectar la que ha quedado vacía.

Aukeran, bilkura zenbait orduz luzatzen bada, batzordeko presidenteak bilkura hamar minutuz etetea erabaki ahal izango du, airea biziago sartzeko aretoaren kanpoaldetik aretoaren barrualdera. Batzordeko legelariak Mantentze-lanetako Atalari etetearen berri emango dio, alda dezan, aldez aurretik zehaztutako denboran, aireztapen-emaria % 100ean kanpoaldeko airearekin.

Opcionalmente, cuando la sesión se prolongue varias horas, la Presidencia de la comisión podrá acordar la suspensión de la sesión por diez minutos, al objeto de introducir con mayor intensidad aire del exterior a la sala. El letrado o letrada de la comisión lo pondrá en conocimiento de la Sección de Mantenimiento para que proceda, durante el tiempo que se predetermine, a modificar el caudal de ventilación con aire 100 % del exterior.

**Bosgarrena. Ponentzia-aretoak, taldeartekoak, talde-bilerak eta jarduera ez-parlamentarioa antolatzea**

Talde parlamentarioek eta gainerako erabiltzaileek (Gobernua, prentsa eta abar), edozein bilera-modalitatetan, behar dituzten baliabide teknikoen eta espazioen berri emango zaio Eusko Legebiltzarreko Protokolo Zerbitzuari (protokolo@legebiltzarra.eus) 24 ordu lehenago, gutxienez, eta zerbitzu horrek inplikatutako zerbitzuei jakinaraziko die.

Nolanahi ere, honako hauek adieraziko dira: aurreikusitako hasiera- eta amaiera-ordua, parte-hartzaileen kopurua eta legebiltzarkideen presentzia, jarduera parlamentarioak lehentasuna izango baitu gainerakoen aurretik. Prentsa-estaldura behar izanez gero, berariaz adierazi beharko da.

Bilera hasi ondoren, protokolo@legebiltzarra.eus helbide elektronikora bidaliko dute bileran dauden pertsonen identifikazioa (NAN), zerbitzu horrek emandako formatuan.

Taldearteko bilerak, ponentziak eta talde-bilerak 1. aretoan egingo dira, eta edukiera 10 pertsonara mugatuko da.

Talde parlamentario handienen bilerak, hots, aurreko muga gainditzen duten taldeen bilerak, batez ere telematikoki egingo dira, talde parlamentarioen berezko baliabideekin. Aurrekoa ezinezkoa denean bakarrik egin ahal izango dira bilera horiek Tomas Moro aretoan, astelehen, astearte eta asteazkenetan, 24 ordu lehenago Protokolo Zerbitzuan erreserbatu ondoren. Erreserbarekin batera, behar teknikoak eta behar diren espazioak adieraziko dira.

2. eta 3. batzorde-aretoetan ere egin ahal izango dira lantaldeen, taldeen eta talde parlamentarioen bilerak, 13 laguneko edukierara mugatuta, astearteetan, 12:00ak arte, eta osoko bilkurako egunetan.

Espazio berriak prestatu behar direnean, arrazoiak behar bezala egiaztatuta, Bozeramaileen Batzarraren aretoan egin ahal izango da bilera, zortzi pertsona baino gutxiago izatekotan, eta aretoaren muga teknikoak kontuan hartuta.

**Quinta. Ordenación de las salas de ponencias, intergrupos, reuniones de grupo y actividad no parlamentaria**

Las necesidades técnicas y de espacio que precisen los grupos parlamentarios o demás solicitantes (Gobierno, periodistas, etc.), en cualquiera de las modalidades de reunión, serán comunicadas, con un mínimo de 24 horas de antelación, al Servicio de Protocolo del Parlamento Vasco (protokolo@legebiltzarra.eus), que lo pondrá en conocimiento de los distintos servicios implicados.

Se indicará, en todo caso, la hora de inicio y fin prevista, número de participantes y si hay presencia de parlamentarios o parlamentarias, ya que la actividad parlamentaria tendrá preferencia sobre el resto. En caso de necesitar cobertura de prensa, se habrá de señalar expresamente.

Una vez iniciada la reunión, enviarán a la dirección de correo protokolo@legebiltzarra.eus la identificación (DNI) de las personas presentes en la reunión, en el formato facilitado por dicho servicio.

Las reuniones de intergrupos, ponencias y reuniones de grupo se llevarán a cabo en la sala n.º 1, con una limitación de aforo de 10 personas.

Las reuniones de los grupos parlamentarios más numerosos, entendidos por tales los que rebasen el límite anterior, se realizarán preferentemente telemáticamente, con los medios propios de los grupos parlamentarios. Únicamente cuando lo anterior no sea posible, se podrán realizar en la sala Tomás Moro, los lunes, martes y miércoles, previa reserva ante el Servicio de Protocolo, con 24 horas de antelación. Junto con la reserva se indicarán las necesidades técnicas y de espacio.

Las salas de comisiones n.º 2 y 3 podrán acoger reuniones de ponencia, intergrupos y grupos parlamentarios, con una limitación de aforo de 13 personas, los martes hasta las 12:00 horas, así como los días de pleno.

Cuando, por razones debidamente acreditadas, sea necesario habilitar nuevos espacios, la reunión, en todo caso inferior en número a ocho personas, podrá ser derivada a la sala de la Junta de Portavoces, teniendo en cuenta las limitaciones técnicas de la sala.

**Seigarrena. Prentsa-langileen eskubideak eta betebeharrak**

Legebiltzarrera sartzeko eta bertan egoteko ordutegia jarduera parlamentarioari egokituko zaio beti, eta ezin izango da Legebiltzarrera sartu, inoiz ez, komunikabideentzako deialdirik ez badago. Era berean, ezin izango da instalazioetara sartu edo horiek erabili Prentsa Atalaren lan-ordutegitik kanpo.

Prentsa Atalak emandako kredentzialak honetarako eskubidea emango die titularrei:

- Legebiltzarraren egoitzara sartzeko, betiere kokatuko diren espazioen edukiera errespetatuz.
- Osoko bilkuren aretoan prentsarentzat prestatu den tribunara sartzea.
- Prentsa Atalak ezarritako baldintzetan, Legebiltzarraren egoitzan egiten diren prentsaurrekoen, adierazpenen eta bestelako informazio-ekintzen berri ematea.
- Era guztietako ekitaldi instituzionalen berri ematea Prentsa Atalak ezarritako baldintzetan.
- Eusko Legebiltzarrak hedabideen eskura jarri dituen tresnak erabiltzea, komunikabide mota bakoitzari dagozkion espazioak errespetatuz.

Estaldura iraunkorra duten hedabideek, hala nola erredaktore grafikoek eta telebista-kamerek:

- Informazioen berri eman ahal izango dituzte Legebiltzarreko gune komun guztietan, salbu eta kafetegian eta bulego pribatuetan (bulegoetan, taldeen egoitzetan), non ez duten erabiltzaileen berariazko baimena.
- Osoko bilkuretan, aretoan beraientzat prestatu den lekuan egin beharko dute lana, gehienez ere lau pertsonako taldeetan, pertsonen arteko distantzia errespetatzen dela bermatuta.
- Prentsa-palkoetatik ezin izango da telebista-grabaziorik egin; argazkilariak modu ordenatuan sartu ahal izango dira palkoetara. Materiala bidali eta deskargatzeko guneak izango dituzte Tomas Moro aretoan.
- Osoko bilkuretan ezin izango dira irrati-kabinak erabili baliabide grafikoak hartzeko.

**Sexta. Derechos y deberes del personal dedicado a las labores de prensa**

El horario de acceso y presencia en el Parlamento siempre estará vinculado a la actividad parlamentaria, y no se podrá acceder a él, en ningún caso, si no hay convocatorias abiertas a los medios de comunicación. Tampoco se podrá acceder, ni hacer uso de las instalaciones, fuera del horario de trabajo del Servicio de Prensa.

La credencial expedida por el Servicio de Prensa dará derecho a sus titulares a:

- Acceder a la sede parlamentaria, siempre respetando los aforos de los espacios en los que vayan a estar ubicados.
- Acceder a la tribuna del salón de plenos habilitada para prensa.
- Efectuar la cobertura de ruedas de prensa, declaraciones y cualesquiera otros actos informativos que tengan lugar en la sede parlamentaria, en las condiciones establecidas para ello por el Servicio de Prensa.
- Efectuar coberturas informativas de todo tipo de actos institucionales en las condiciones que establezca el Servicio de Prensa.
- Emplear las herramientas que el Parlamento Vasco ha instalado a disposición de los medios, respetando los espacios que corresponden a cada tipo de medio de comunicación.

Los medios con cobertura permanente, como redactoras o redactores gráficos y cámaras de TV:

- Podrán efectuar coberturas informativas en todos los espacios comunes de la sede parlamentaria, excepto en la cafetería y en dependencias privadas (despachos, sedes de grupos), salvo expresa autorización de sus usuarios o usuarias.
- Durante los plenos, deberán realizar su trabajo dentro del salón en los lugares habilitados para ellos, en grupos máximos de cuatro personas, que aseguren el respeto de la distancia interpersonal.
- No podrán realizarse grabaciones de televisión desde los palcos de prensa; los fotógrafos y fotógrafas podrán acceder a los mismos de manera ordenada. Para su envío y descarga, contarán con espacios reservados en la sala Tomás Moro.
- Durante las sesiones plenarias no se podrán utilizar las cabinas de radio para la toma de recursos gráficos.

- Mahaiaren, Bozeramaileen Batzarraren, ponentzien edo batzordeen bilkuretan, bilera hasi baino lehen bakarrik hartu ahal izango dira irudiak.

Telebistako teknikariek seinale instituzionala grabatu eta behar dituzten kanpoko konexioak egin ahal izango dituzte prentsa-aretoko mahai nagusiaren eskuinaldean dagoen aretotik.

Irratiko teknikariek eta erredaktoreek lan egiteko behar dituzten baliabide teknikoak izango dituzte lehen solairuan gaitutako kabinetan.

Prentsa eta albiste-agentzietako erredaktoreek beren lana egiteko terminalak izango dituzte egoitza nagusiko atariaren ezkerraldean horretarako prestatutako gelan.

Informazioaren berri noizean behin ematen duten hedabideek sartzeko baimena eskatu beharko dute. Ohiko instalazioen betetze-maila eta baimendutako edukierak zein diren, Legebiltzarreko zerbitzuek beste toki batzuk prestatuko dituzte, batez ere Tomas Moro aretoan, ekitaldiaren jarraipena egiteko, betiere hori bateragarria bada Eusko Legebiltzarreko zerbitzuek aretoan baimendutako beste jarduerekin.

Prentsa Atala arduratzen da instalazio honetako tokiak esleitzeaz.

Talde parlamentarioetako prentsa-laguntzaileek, halakotzat akreditatuta badaude eta beren eginkizunen artean informazio-arloan laguntza-lanak egitea sartzen bada, berariaz jakinarazi beharko diote Prentsa Atalari, eta horrek baimena emango die Legebiltzarraren egoitzan egiten diren prentsaurrekoetara, adierazpenetara eta bestelako informazio-ekitaldietara sartzeko.

Era berean, langile horiek baimena izango dute osoko bilkuretara joateko eta komunikabideentzat gordetako espazioetatik dagokion jarraipena egiteko, betiere hedabideei lehentasuna emanez.

Langile horiek ezin izango dira sartu osoko bilkuren aretoan kazetari grafikoentzat gordetako guneetara legebiltzarkideen irudiak hartzeko eta erredaktore grafikoen arau berberak bete beharko dituzte jarduera instituzional guztietan, betiere lehentasuna hedabideei emanez.

Erakundeetako kargudunen prentsa- eta komunikazio-laguntzaileak osoko bilkuretara joan ahal izango dira, eta bilkuren jarraipena egin ahal izango dituzte komunikabideentzat gordetako guneetatik, betiere hedabideei emanez lehentasuna.

Komunikazio-jarduera guztietan, pertsonen arteko distantzia mantendu behar da; saihestuko dira distantzia bermatzen ez duten jarduerak.

- Durante las sesiones de la Mesa, Junta de Portavoces, ponencias o comisiones, se podrán tomar imágenes exclusivamente antes del comienzo de la reunión.

Los técnicos o técnicas de TV podrán grabar la señal institucional y realizar las conexiones exteriores que requieran desde la sala habilitada para ello, ubicada a la derecha de la mesa cabecera de la sala de prensa.

Los técnicos y redactores de radio dispondrán de los medios técnicos necesarios para su trabajo en las cabinas habilitadas en la primera planta.

Los redactores y redactoras de prensa y agencias de noticias dispondrán de terminales para realizar su trabajo en la sala habilitada para este fin en la zona izquierda del vestíbulo de la sede principal.

Los medios con cobertura esporádica deberán solicitar el acceso. En función del grado de saturación de las instalaciones ordinarias y de los aforos permitidos, los servicios del Parlamento habilitarán los correspondientes puestos de seguimiento en otros espacios de la sede, normalmente en la sala Tomás Moro, siempre y cuando sea compatible con otras actividades que los servicios del Parlamento Vasco hayan autorizado en la sala.

El Servicio de Prensa es el órgano responsable de asignar los puestos en esta instalación.

Los asistentes de prensa de los grupos parlamentarios que estén acreditados como tales y en cuyas competencias se incluya la realización de tareas de apoyo en el ámbito de la información deberán comunicarlo expresamente al Servicio de Prensa, lo que les habilitará para acceder a ruedas de prensa, declaraciones y cualesquiera actos informativos que se celebren en la sede parlamentaria.

Este personal estará igualmente habilitado para asistir a los plenos y efectuar el correspondiente seguimiento desde los espacios reservados para los medios de comunicación, aunque siempre dando prioridad a los medios.

Este personal no podrá acceder a las zonas reservadas a los gráficos en el salón de plenos para tomar imágenes de los parlamentarios y parlamentarias, y deberá observar las mismas normas que los redactores y redactoras gráficas en cualquier actividad institucional, dando siempre la prioridad debida a los medios informativos.

Los asistentes de prensa y comunicación de los cargos institucionales podrán asistir a los plenos y efectuar el correspondiente seguimiento desde los espacios reservados a los medios de comunicación, aunque siempre dando prioridad a los medios.

En toda actividad de comunicación, se ha de mantener la distancia interpersonal, evitando aquellas actuaciones en las que no esté asegurada.

Zeregin horien arduradunek Ganberako zerbitzuei lagundu beharko diete egoitzan informazio-materialak banatzean.

Materialok banatzeko, Prentsa Atalaren eta eginkizun hori bete ohi duten mandatarien laguntza izango dute.

### Zazpigarrena. Kanpoko enpresetako langileak

Legebiltzarrera sartzen diren enpresek Mantentze-lanetako Atalari jakinarazi beharko diote (mantenimendu@legebiltzarra.eus), 24 ordu lehenago, eraikinera sartuko diren langileen eta, hala badagokio, ibilgailuen zerrenda.

Aldez aurretik, hartu beharreko neurrien gaineko protokolo bat edo txosten bat aurkeztu beharko dute, egin beharreko lanei buruzkoa, eta berariaz jasoko dituena COVID birusaren transmisioaren aurkako prebentzio-neurriak. Neurriok, betiere, kontratuaren ardura duen arloak edo atalak onartu beharko ditu.

Arlo edo atal bakoitzak asteroko erregistro bat egingo du jakiteko haiek kontratatutako enpresetako zenbat langile sartu diren, nortzuk diren eta nora sartu diren, COVIDak erasandako langileekin izan daitezkeen harremanak kontrolatu ahal izateko.

### Zortzigarrena. Kafetegira sartzea eta erabiltzea

Kafetegiko erabiltzaileek ezin izango dute mahaien kokapena mugitu edo aldatu, ez kafetegian erreserbatutako espazioan ez Tomas Moro aretoan jantoki-zerbitzua han egiten denean. Mahaien antolaketa aldatzeko debekua ageriko leku batean adieraziko da.

Kafetegiko mahaiek adierazgarri bat izango dute mahaia erabili ostean desinfektatu den adierazteko. Hau adieraziko du: garbitua/erabil daiteke (berdez), erabilita/garbitu gabe (gorriz). Erabiltzaileek kolore gorria duen aldea utziko dute gorantz, mahaia erabili ostean. Desinfektatu ondoren, buelta emango zaio adierazgarriari. Adierazgarri berdea duten mahaiak bakarrik erabili ahal izango dira.

Erabiltzaileek erantzukizunez bete eta errespetatu beharko dute pertsonen arteko distantzia; maskara jarrita eduki beharko dute une oro, janaria irensteko uneetan izan ezik, eta errespetatu beharko dituzte aurretik finkatutako eserlekuen eta mahaien antolaera nahiz sarreran adierazitako gehieneko edukiera.

Jende gehien biltzen den egunetan, eta ahal den neurrian, gomendatzen da talde parlamentarioek

Quienes sean responsables de estas tareas deberán colaborar también con los servicios de la Cámara a la hora de distribuir materiales informativos en la sede.

Para su distribución, se contará con la colaboración del Servicio de Prensa y el equipo de ujieres que habitualmente se encarga de realizar esta función.

### Séptima. Personal de empresas externas

Las empresas que accedan al Parlamento deberán notificar el listado del personal y vehículos, en su caso, que van a acceder al edificio, con 24 horas de antelación, por medio de comunicación a la Sección de Mantenimiento (mantenimendu@legebiltzarra.eus).

Deberán presentar, previamente, un protocolo o documentación de las medidas a adoptar, que esté referido a los trabajos en concreto a realizar, y que incluya expresa previsión de medidas preventivas contra la transmisión del virus de la COVID. Estas medidas habrán de ser aprobadas por el área o sección encargada del contrato.

Cada área o sección llevará un registro semanal del número e identidad de las personas de las empresas por ellas contratadas, con indicación de las áreas a las que hayan accedido, con el objeto de poder controlar posibles contactos con personal afectado por COVID.

### Octava. Acceso y uso de la cafetería

Las personas usuarias de la cafetería no podrán mover ni alterar la disposición de las mesas, tanto en el espacio reservado en la cafetería como en la sala Tomás Moro cuando acoge el servicio de comedor. Se indicará en un lugar visible la prohibición de modificar la posición de las mesas.

Las mesas de la cafetería contarán con un indicador que exprese si ha sido desinfectada tras un uso anterior, del siguiente tenor: limpia/se puede usar (en color verde); usada/sin limpiar (en color rojo). Las personas usuarias colaborarán tras el uso de una mesa, colocando el indicador con la cara en color rojo hacia arriba. Una vez desinfectada se dará la vuelta al indicador. Solo se podrá hacer uso de las mesas que cuenten con indicador en verde.

Las personas que hagan uso de la cafetería deberán atender y respetar, con responsabilidad, el distanciamiento interpersonal debido, el mantenimiento de la mascarilla por norma, salvo en los momentos de ingesta de alimentos, el respeto de la disposición de los asientos y mesas prefijada, así como el aforo máximo indicado a la entrada.

En los días de mayor afluencia, y en la medida en que sea posible, se recomienda que los grupos

kafetegi-zerbitzuari janaria eskatu eta taldearen bulegoetara eramatea.

Erabat debekatuta dago Legebiltzarraren perimetroan erretzea.

**Xedapen indargabetzailea**

Instrukzio honek 2020ko urriaren 13ko instrukzioa indargabetzen du, Eusko Legebiltzarreko aretoetako sarrera, presentzia, erabilera eta funtzionamendua arautzen dituena.

**Azken xedapena**

Instrukzio hau Legebiltzarreko Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

***

parlamentarios encarguen al servicio de cafetería comida para llevar a las dependencias del grupo.

Queda terminantemente prohibido fumar en el espacio perimetral del Parlamento.

**Disposición derogatoria**

La presente instrucción deroga la instrucción de 13 de octubre de 2020, por la que se regula el acceso, la presencia, uso y funcionamiento de las distintas salas del Parlamento Vasco.

**Disposición final**

La presente instrucción entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín del Parlamento.

***

# LEGEBILTZARREKO ORGANOEN OSAERA
# COMPOSICIÓN DE LOS ÓRGANOS PARLAMENTARIOS

***Miren Gallástegui Oyarzábal, Ekain Rico Lezama eta Aitor Aldasoro Iturbe legebiltzarkideen bateragarritasun-egoerari buruz*** (Osoko Bilkuraren erabakia)
(12/01.01.00.00077), (12/01.01.00.00076), (12/01.01.00.00078)

Eusko Legebiltzarrak, 2020ko urriaren 22an egindako osoko bilkuran, aztergai izan zuen Bateraezintasun Batzordeak egindako irizpena, Miren Gallástegui Oyarzábal, Ekain Rico Lezama eta Aitor Aldasoro Iturbe legebiltzarkideek izan litzaketen bateraezintasunei buruzkoa, eta bere hartantxe onetsi zuen.

Lehendakaritza honek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 105.1 artikuluan adierazitakoari jarraituz, agintzen du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila erabaki hori.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

***En relación con la situación de compatibilidad de la parlamentaria y parlamentarios Miren Gallástegui Oyarzábal, Ekain Rico Lezama y Aitor Aldasoro Iturbe*** (Acuerdo del Pleno)
(12/01.01.00.00077), (12/01.01.00.00076), (12/01.01.00.00078)

El Parlamento Vasco, en la sesión plenaria celebrada el día 22 de octubre de 2020, visto el dictamen formulado por la Comisión de Incompatibilidades sobre posibles causas de incompatibilidad relativas a la parlamentaria y parlamentarios Miren Gallástegui Oyarzábal, Ekain Rico Lezama y Aitor Aldasoro Iturbe, aprobó en sus propios términos el dictamen elevado por la citada comisión.

Esta Presidencia, al amparo de lo dispuesto en el artículo 105.1 del vigente Reglamento de la Cámara, ordena la publicación del mencionado acuerdo en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

***

***Ana Ruiz de Alegria Maestu legebiltzarkidearen bateragarritasun-egoerari buruz*** (Osoko Bilkuraren erabakia)
(12/01.01.00.00079)

Eusko Legebiltzarrak, 2020ko urriaren 29an egindako osoko bilkuran, aztergai izan zuen Bateraezintasun Batzordeak egindako irizpena, Ana Ruiz de Alegria Maestu legebiltzarkideak izan litzakeen

***En relación con la situación de compatibilidad de la parlamentaria Ana Ruiz de Alegria Maestu*** (Acuerdo del Pleno)
(12/01.01.00.00079)

El Parlamento Vasco, en la sesión plenaria celebrada el día 29 de octubre de 2020, visto el dictamen formulado por la Comisión de Incompatibilidades sobre posibles causas de